

## Antxiñako fotografixia

### Kaleko baserriarak

**H**erri-egunian eta beste jai batzuetan baserriarak jaztia ezta azkenengo hamarkadetako modia. Lehenago be izaten ziran halako ohiturak, antxiñako argazkittan ikusi geinkien lez. Gaurkuak, hain aspaldikua izan barik be, eukiko dittu larogei bat urte, hau da, 1930-1931 urte ingurukua dala pentsaitten dogu. Fotografixia Torreauzion atarata dago, **Elazarra** baserriko larrainian, **ira-meta** baten aurrian. Iria, dakitzuenez, asko ebalten zan orduan labrantza-etxietan: ittuetan ganaduentzako azpik ataratako, soruetan onai moduan botaten zan sitsa egittek, eta beste hainbat zeregiñetarako.

Ezkerretara ur-potzua, **posateria**, somaitten da. Orainddiok be hantxe dago egon, baiña, 1950eko hamarkadan baserri hau eta etxeinguruak barriztau ziranian, larrainia kendu eta posateria bide barrixaren eskumako aldiaren geratu zan. Atzian **Garibaiko torria** agiri da. Fotografixa honen eskuman, barriz, **mahats-parrak** jarteko egur-sistemiaren haseria. Azkenaldi honetan Zañartu, San Pedro eta Madalena alde horreittan mahatsak eta txakoliñak inddar puska bat hartu daue, baiña antxiña be, gutxi asko, hor eta Oñatiko beste auzo batzuetan **txakoliña** egitten zana badakigu. Atzian ikusten dana **Kalejako** etxeren bat izango da, XIX. gizaldiko akaberan San Pedroko punta-paixa-fabrikiak langillientzako jaso eben etxe-illarako bat.

Argazkiko neska gaztiak eta umetxuak eztira baserri-tarrak, kaletarrak baiño. Neskak **Maria Frantziska Elortza** joskiñaren taillerrian ziharduein ikasten Kale Zaharrian. Maria Frantziska Elazarrako albia zan, baiña Leon Mendiolarekin ezkondu eta gero kalia bizi zana. Jairen bat zelebraitteko-edo, Santa Lutzia eguna akaso, bialduko zittuain bere jaiotexera joskin-maistriak ikasliak erretatua ataratera. Honeitxek dittuzue:

Goixenian: **Kasiana Galarraga** mutrikuarra, Kale Zaharreko Uriartenian aña moduan eguen Ebarista Arroitaonaindiaren albia. Eta beheratxuago erdixan, **Petri Ugarte**, Zubillaga fabrikako porterixakua, baiña ordurako kalia biziko zana.

Erdixan ezkerretik hasitta: **Kasilda Zufiria**, gerora Juanitosienara ezkonduko zana; **Adeilada Korkostegi**, telefonista jardun ondoren, monja fan zana; eta **Maritxu Madina**, plazako Txurrukanian, Florentina ahizpiarekin batera, urte askuan tabernari eza-gutu gebena.

Behian jasarritta: **Migel Angel Arzuaga**, handik urte batzuetara Elazarra inguruko paraje horreik eta Oñatiko beste asko pintauko eben margolari ezaguna; eta **Arantxa Arzuaga**, aurrekuaren arrebia; hau be monja fan zan. Neskatilla-mutikuak Kasiana Galarragaren aldekuak ziran herriko plaza nagusixan, neska hori Pura eta Lola Carrascal maistren etxian bizi zalako. Horregatik fan-gu ziran egun horretan gazte-talde horrekin.

J. E.

Argazkixa Axun Arzuagak itzittakua da. Argibidiak, barriz, Axunek berak eta Roberto Zuluetak emun doskue. Milla esker bixoi!

